

**“Haur 12” (5 urte) guraso erdaldunak**

N: E(g)unon “Haur 12”! E(g)unon “Haur 12”!!
H: Ze esanbitzut ba?
N: Ba e(g)unon
H: E(g)unon
N: Zemat urte (d)akazu zuk?
H: Bost
N: Bost urte handi (d)akazu? Eta zeine(g)az bixi zaz?
H: Ama(ga)z
N: Ama(ga)z bakarrik?
H: Ahiztia(ga)z eta anaxia(ga)z
N: Eta zelan deitzendi ahizti eta anaxi?
H: Neider eta Ñamei
N: Zelan?
H: Neider eta Ñamei
N: Neider eta Ñamei?
H: Neider da anaxi, eta ahiztire Ñamei
N: A bai? Eta zeinde ee zarraua? Na(g)usixaua?
H: Anaxi
N: Anaxi zarraua?
H: Hamabi urte
N: Jesus!, ia handiak di, ezta?
H: Eta nire ahiztik hamar
N: Aaa, eta zu etxin zazenin ze etxi gustaten gatzu?
H: Zer?
N: Etxin zazenin, ze etxi gustaten gatzu?
H: Etxi?
N: Bai, ze etxezu?
H: Neure kuartun jolastu
N: Zetan jolastezu zeure kuartun?
H: Pintxaten
N: Pintxaten? Eta ze pintxatezu, printzesak eta?
H: Ez, bixotzak eta...
N: Bixotzak eta pintxatezu? Eta jolastezu Ñamei-(g)az eta?
H: Batzutan
N: Bai?
H: Batzutan neure anaxia(ga)z eta beste batzutan neure ahiztia(ga)z

N: Klaro eske bi (d)akazu aukeratzeko, zuk bai suerti. Oso ondo eta ze gusta...ze jateko gustaten gatzu zuri "Haur 12"?
H: Niri?
N: Bai
H: Arroza
N: Arroza gustaten gatzu? "Haur 11"n morun, "Haur 11"k be arroza esazta e. Arroza bakarrik jatezu bañe ala? E(g)unero arroza eztozu jango? Ze jatezu gexaua?
H: Pure...
N: Pure, eta hori arpixoi? Gustaten gatzu pure?
H: Ez
N: jaja Bañe jan enbire, baietz? Neska handixe etxeko, klaro. Bale kontakoztazu o(rai)n ho(r)ixe upiñe? E? Hasiko(g)az?
H: Ba zeuk esan
N: Konta zeozer, ia lelengoko e hor karratun ze ikustenda?
H: Txakurre
N: Txakurre eta ze ikustenda gexaua?
H: Mutile hazurra(ga)z
N: Da ze etxetza bi(g)arrenin mutilak?
H: Hazurre apartea bota, eta txakurre behatzen
N: Da zelan da txakurre?
H: Hasarratute
N: Hasarratu eindde txakurre? Ia o(rai)n ze etxetzan txakurrak, aber e behatu ondo.
H: Ah! Pipi kendutza
N: Ze kendutza?
H: Behatu
N: Zer, zer, zer da hau bañe? Ze kendutza?
H: Eztai
N: Pipi? Pipi kendutza da ze eitza?
H: Zer?
N: Ze eitza gero, pipia(ga)z?
H: Bota
N: No(r)arte?
H: Apartea
N: Apartea botatza? Eta ze(g)atxik pentsatezu botatzala apartea?
H: Berak ez e(d)ukitxeko
N: Ze hamen ze(g)atxik hasarrature? Apartea botatzalako, ezta? Eta berak be eitza hasarratute holan, hartu eta "Ala, zeuk bebai, neuk bebai!" Baietz? Zuk hori etxetzazu txakurrai, apartea bota gauzak?
H: Ez!

N: Ez, ezta?
H: Nik eztakat txakurrik!
N: Bañe igual kaleko zeozeñei, ba i(g)ual peloti topatezu...
H: Bueno batzutan, peloti eta lagatezte txakurrai botateko
N: Bañe aparte-aparteia eztotzazu botako? Ze gero imajina berak be kentzetzule koletako gomi eta aparteia bota? Hori a(ha)l dotzu e(g)in txakurrak? Ee? A(ha)l dotzu e(g)in?
H: Itsas aurrin (parkin) eta lagatezte
N: A bai? A eta eurakin jolastezu?
H: Pelotia(ga)z
N: Da "Haur 12" o(rai)n kontakoztazu zeoze barregarrixen? Ezgatzu ixte pasa ba i(g)ual jolastordun ero? Lagunakin jolasten zabizela ero? Kalin ero plaxan? Inoiz ez gatzu pasa barregarrixen?
H: Ba, Alasne eta geuzen plaxan
N: Bai
H: Eta Aiert ura(ga)z botaban torre(r)a, eta torri jauzi einzan
N: Ein zenduen torre guzti jauzi zan? Eta zuek ze ein zenduen barre? Bueno zuk ez, berak eingo ban barre Aiertek, baietz?
H: Bañe gero amak bronki botatzen
N: A klaro, eske gauza txarra da hori, baietz? Eta ze pasazan gexaua plaxan?
H: Geuzen uretan, ni halan ipini nitxan, eta urak aurre(r)a botatzen eta buru eta dana ureta(ra)
N: Eta ze eitzun gero olatun, buelta-bueltaka ibili zifan?
H: Ez, gero ur barrutik igaxan
N: A bai? Igaxan ba(d)akixu ala?
H: Bai
N: Pizinan zabiz?
H: Ez
N: Zeñek erakutsizu ba igaxan?
H: Plaxan da(k)i(t) bañe pizinan ezta(k)i(t)
N: Ez? Ba pizinan errezaua da e. Ze plaxan daz olato handiak, eta pizinan holan
H: Bai bañe eztot ikutzen, eta plaxan bai
N: Bañe pizina txikire jun zeinke
H: Bañe eztot nahi
N: Eta gañea pizina txikixin eoten da ure epel-epela, da plaxan hotz-hotza
H: Hobeto hotza
N: Bai? Hotzaz gexaua gustaten gatzu?
H: Bai
N: Bai? Ezgatzu aiaten holan, dardarak?
H: Ez, eta zuri?

N: Niri bai
H: Niri ez
N: Zuri ez? Suerti zeurire "Haur 12", jolin. Ba ni juten na plaire bañaten na, ikutzen dot ure eta Uh!, eta esatendot "Ni pizina nu!", eta pizinan epelaua, hobeto. Hurrengun bate(r)a jungo ga pizina, ikusiko zu. Bazatoz neu(g)az, etorriko zaz?
H: Ba non ikusikoa ba?
N: A ba kalin topaten gazen in esangotzut "Bazatoz neu(g)az?" Bale?
H: ...
N: Benga atzanengoko galderi bai? Datorren astin ze pasatenda, ze hartzendou?
H: Oporrak
N: Oporrak, eta ze engozu oporretan?
H: Oporreta(ra) jun!
N: No(r)a jungo zaz?
H: Eztai
N: Kanpo(r)a?
H: Eztai
N: Ala Ondarrun ge(r)atuko zaz?
H: Eztai
N: Ze zeozein geatu bi(r)kora Ondarrun zaintzen e. Ze imajina danok juten bagaz oporreta(r)a? Ze engozku Ondarru kendu! Eta ordun enbirou Ondarru zaindu. Ni Ondarrun ge(r)atzen na zaintzen, zu?
H: Kanpo(r)a jungo na oporretan
N: Bai?
H: Eztai no(r)a, Parisea ero...
N: Bai? Eta zelan jungo zaz Parisearte
H: Ba, dirua(ga)z
N: Bañe zelan jungo zaz, abioin, ero barkun...?
H: Eztai
N: Ero kotxin?
H: Eztai
N: Eztakixu?
H: Neure amai galdetubitatzat
N: A bale ba gero galdetu etxin